

IL AZALPEN PROBA • <i>Urpekarriak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Gustatzen zaizkit euskaldunak, esan zuen gizonak irribarrea ezpainenan marraztuta, eta buelta erdi eman eta alde egin zuen mangera biltzera.

Joxemik ikusi zuen gizona mangeraren hasierarantz hurbiltzen, eraikinari izkina hartu ostean begi-bistatik desagertu zitzaion arte. Zer esan nahi izan zion, euskaldunak gustuko zituela esatean? Oraingoz independentzia lortu ez zutelako maite ote zituen gizon hark euskaldunak? Jakingo zuen noski, euskaldunetarik askok, Joxemi bera tartean, independentzia nahi zutela. Gainera, ez ziren hain urrun Euskal Herriko independentziaren izenean ETAk eragindako hildakoengatik Espainian euskaldunak gaizki hartzen zituzten garaiak. Baina, hala eta guztiz ere, euskaldunak maite zituela esan zuen gizon itxuraz oso espainol eta baita itxuraz oso Espainia zale hark, agian euskaldunen aldeko ezaugarri modura hartzen zuelako euskaldunok oraingoz independentzia lortu ez izana?

Tira, zer dakit nik, esan zion Joxemiri bere buruari eta etxera sartu zen, ez zekiela zertara, egia esan.

Baina halaxe zen: Katalunia independentea zen eta Euskal Herria ez. Ezinezkoa zirudiena, gauzatua. Asko lagundu zuen Espainian gobernu aldaketa handia –Grezian bezala– gertatu izanak.

IL AZALPEN PROBA • <i>Urpekarriak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Mireneri deitu gabe jarraitzen zuen, konturatu zen gizona ur mineralen kafetera betetzen ari zen unean. Hain zen edangaitza iturrikoa! Baina goizeko zortzi eta erdiak ez da ordu ona inori telefonoz deitzeko, eta buzero txangotik bueltan izan beharko da, erabaki zuen aitak, semea esnatzera abiatzeaz bat.

Lo seko zegoen Jonan, ahoz gora etzanda eta eskuineko hanka edredoitik aterata. Usu ixten zitzaizkion sudur zuloak eta ahoa zabaltzea eragiten zion mutilari. Oso begibistan ageri ziren, beraz, zeramatzan Bracketsak, lo seko dagoen norbaitengan efektu kontraesankorra sorraraziz, erabat naturala den loa eta erabat artifiziala den tramankulua aldi berean ezin bereziago eta ezin elkartuago ageri baitziren gaztearengan islatuta.

Egunon, mutil!, oihukatu zuen aitak, pertsiana altxatzen hasita.

IL AZALPEN PROBA • <i>Urpekarriak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Bere lanaz lehenago, eseri eta berehala galdetu zion emakumeak gizonari. Bien arteko konbertsazioari erraz eta zuzen heltzeko modu bat, ezta? Beti ere, pentsatu zuen Joxemik, agnostiko protestanteen ohituren arabera, kontablea bezalako agnostiko katolikoei egiten zitzaielako gogor samarra eseri eta berehala, uff, garbí haizera zabaldu behar izatea ia-ia norberaren diru irabaziak.

Sants geltokiaren ondoan bizi ziren biak, esan zuen emakumeak. Daelen aitaren aipamenik gabe. Ordainean edo, Joxemiri iruditu zitzaion tokiz kanpo egongo zela Jonanen amari buruzkorik egitea.

Egia esan, gogorik ere ez zeukan, azalpenetan galduko zelakoan, gainera inork eskatu gabe. Joxemiri iruditzen zitzaion ez zela gauza izango bere emaztearen absentzia bi esalditan azaltzeko. Beste partetik senarraren aipamenik egon ez zenez, hobe norbera ere isiltzea.

Neska-mutikoen ikasketa kontuek hartu zuten solasaldia berehala. Dael ona omen zen marrazketan, hau kasualitatea, Jonan bezala. Matematiketan, biak kaskarrak. Dael saskibaloian aritzen zen eta Jonan waterpoloan, baina biek maite zuten futbola. Dael Holandako selekzioaren jarraitzailea zen eta Jonan Espainiakoarena. Hau esatean Joxemiri begiratu zion Luusek, erantzun eske bezala, gizonari iruditu zitzaion... eta aitak begirada jaitsi zuen...

IL AZALPEN PROBA • <i>Urpekarriak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Nahiko modu lehorrean eskatu zituen hanburgesok semeak beraz. Eskuratu arte igaroko ziren bost minutuetan aitarengana bueltatzeak zirudien logikoena, baina mutilak ez zeukan gogo handirik bost minutu haiek ere aitarekin emateko. Erabaki zuen taberna handian zehar ibilalditxo bat egitea, oso posible baitzen, jendeari eta gauzei begira ibiliko bazen ere, nolabait oharkabe pasatzea, taberna betetzen ari zen jendetza apur bat aztoratuta zebilelako, opor hasierako bidaietan normalena izaten baita.

Jende guztia urduri eta opor-lekura ailegatzeko irrikan.

Lehenago ikusitako neska bakartiarenganaino ere ailegatu nahiko zuen mutilak. Abiatu aurretik aitari begiratu zion. Eserita zegoen gizona, hankak luzatuta, luzaketak egiten bezala. Zein ongi ikusten zitzaion buru soildua. Billar bola bat ematen zuen aitaren buru ilegabea. Baina itxura hura ez zihoakion txarto. Ematen baitzion, pentsatzen zuen mutilak, gizon-gizon baten irudia, honako hau pentsatzean, gorputz barruan atximurkada moduko bat sentitzen zuela.

Han izkina batean agertu zen neska gaztea, dagoeneko bi helduk lagunduta, seguruenik gurasoak.

IL AZALPEN PROBA • <i>Urpekarriak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Tentaldia izan zuen Jonanek Daeli ukitzeko, nolabait ukitzeko, eskua erabilita, agian Daelen hankaren gainean utzita, baina ez zuen egin eta, gainera, kontrakoa egin zuen, bere gorputza pixka bat urrundu Daelengandik eta zuzenago begiratu bai itsasoaren mugagabetasunera eta baita Meda uharteetako aterpetxo itxuraz bukoliko hartara ere, bat-batean mutilari Surinamgo oihan beti-berde eta birjinalaren oroitzapen digitala ekarri ziona, ur-jauziz hornituriko basoaren soilgune paradisiakoak eta guzti... eta bere burutik irudiak ihes egin aurretik eta egin ez zezan, ezker eskua azkar altxatu zuen Jonanek eta Daelen belaunaren gainean utzi zuen leun, neskaren belaun hezurtsua estutzearen beldurrez alde batetik, baina baita Daelen azal-haragi-hezur hirutasun miragarri hura sentitu nahian ere modu bateratuan.

Oso denbora laburra behar izan zuen Daelek erreakzionatzeko, Jonani ia-ia zorabiarri egin bazitzaion ere. Modu ezin osagarriagoan erreakzionatu ere, neskak halako indar dardaratsu batez jarri baitzuen bere eskuin eskua lehenago Jonanek neskaren belaun gainean leun utzitako eskuaren gainean.

Neskari begiratu ala ez, duda-mudan hasi zen mutila. Ez baitzen ausartzen, desiratzen zegoen arren. Baina ezin zuen ez begiratu, ziotson bere buruari. Gainera, orain hilda bezala zeukan Daelen belaunean utzitako ezker eskua, bestelako mugimendurik egiteko kemenik gabe, goian eta behean oso garbi sentitzen bazuen ere, borborka, Daelen barne-bizitza –odola ote?, nerbio-sistema?– eskuan eta belaunean.

IL AZALPEN PROBA • <i>Urpekarriak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Desagertu ziren hiru emakumeak.

Hiru gizonak agerian ziren itsasontzian.

Isilean, bakarrik utzi balituzte bezala.

Joxemiri erraza zitzaion hiru emakumeak elkarri laguntzen imajinatzea.

Han, ur-azpian, hegan egiten bezala. Buzeatzeak gertu behar duelako, pentsatu nahi zuen Jonanek, hegan egitetik.

Gerard zigarro bat liatzen hasi zen.

Ama-alabak berriro ikusi zituzten arte, aita-semeentzat oso luze joan ziren hogeita bost minutu haiek.

Bitartean, galdera batzuk egin zizkieten kapitainari. Nork bereak: zenbateko sakoneran buzeatu behar zuten; arrainik ikusten ote ziren; ur haietan tiburoirik bai ala ez...

Lau-bost metrora; arrain koloredun ugari; ea zorterik izan eta marrazo bat ikusten duzuen... Hurrenez hurren, Gerarden erantzunak.